

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko martxoaren 16a

28 ZK.

A U R K I B I D E A

G S A I L A:

Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:

—Burlatako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2000ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina ([2. or.](#)).

G Saila:**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA****Burlatako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2000ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko azaroaren 26an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak Burlatako Udalari buruz egin-dako fiskalizazio txostena, 2000ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2001eko azaroaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Burlatako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2000ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina**AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (3. or.).
- III. Norainokoa (3. or.).
- IV. Iritzia (4. or.).
 - IV.1 Burlatako Udala (4. or.).
 - IV.2 Erakunde autonomoak (4. or.).
- V. Finantzen egoera-orriak (5. or.).
 - V.1 Udala (5. or.).
 - V.2 Erakunde autonomoak (5. or.).
- VI. Burlatako Udalari buruzko iruzkin, ondorio eta gomendioak (11. or.).
 - VI.1 2000ko aurrekontuaren betetzeari buruzko iruzkin orokorrak (11. or.).
 - VI.2 2000ko abenduaren 31ko finantza-egoera. (13. or.).
 - VI.3 Gorabeherak (14. or.).
 - VI.4 Administrazio-kontratazioa (14. or.).
 - VI.5 Bestelako kudeaketa-gomendioak (15. or.).
 - VI.6 Hirigintza (16. or.).
 - VI.7 Euroa sartzeari buruzko gogoetak (17. or.).

VII. Erakunde autonomoak (17. or.).

VII.1 Hilarión Eslava Udalaren Musika Eskola (17. or.).

VII.2 Udalaren Kirol Patronatua (18. or.).

VII.3 Kultura eta Jaietarako Udal Patronatua (19. or.).

Burlatako Udalak aurkezturiko alegazioak (20. or.).

Burlatako Udalak aurkezturiko alegazioen erantzuna (22. or.).

I. eranskina: Burlatako Udalaren organigrama, 2000ko abenduaren 31ko plantilla organikoaren arabera (23. or.).

II. eranskina: Erabilitako adierazleen definizioa (24. or.).

I. SARRERA

Burlata Iruñerrian dago. 2000ko ekainaren 9ko udal erroldaren arabera, 17.126 biztanle ditu (16.887 biztanle 2000ko urtarrilaren 1eko erroldaren arabera).

Bere lana garatzeko, Udalak ondoko erakunde autonomoak ditu:

- "Hilarión Eslava" Udalaren Musika Eskola
- Kultura eta Jaietarako Udal Patronatua
- Kirolen Udal Patronatua

Burlata, bestalde, Iruñerriko Mankomunitatean dago sarturik. Mankomunitate hori uraren ziklo integralaz eta hiri hondakin solidoak kudeatu eta tratatzeaz arduratzen da.

Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Eskualdeko Bulegoan ere parte hartzen du Burlatako Udalak.

Ondoko taulan agertzen diren zenbatekoak izan dira 2000n eta 1999an Udalak eta haren erakunde autonomoek izandako aipagarrienak:

(milioi pezetatan)

Entitatea	Aitorturiko obligazioak		Aitorturiko eskubideak		Langileria	
	2000	1999	2000	1999	2000-12-31	1999-12-31
Udala	1.560	1.351	1.550	1.426	181	221
Musika Eskola	101	79	103	78	29	26
Kirol Patronatua	168	158	176	161	21	16
Kultura Patronatua	64	58	65	54	4	4

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbarari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, fiskalizatu egin ditugu bai Burlatako Udaleko kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa bai udal horren nahiz haren erakunde autonomoen 2000ko ekitaldiko gastu eta dirusarreraren aurrekontuen exekuzioa.

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: aipatutako legeek, Toki araubidearen oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuak, administrazio-kontratazioari eta hirigintza-kudeaketari buruzko araudiak eta Nafarroako toki entitatei oro har aplikatzekoa den gairontzeko araudiak.

Kontabilitate eta aurrekontu arloan, araubide juridikoa honako hauetan ezarritakoa da: 270, 271 eta 272 zenbakiak dauzkaten foru dekretuak, guztiak 1998ko irailaren 21ekoak, zeinak aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta Nafarroako Toki Administrazioarako kontabilitateari buruzkoak baitira. Horien aplikazioa nahitaezkoa 2000ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Txostenaren helburua honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea da:

a) Burlatako Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2000ko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 2000-12-31ko ondare-egoeraren agerpena, aplikatzekoak diren kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Jarduera ekonomiko eta finantzarioren legezotasun printzipioarekiko egokitzapena.

d) Udalaren finantza-egoera 2000ko abenduaren 31n.

e) Nafarroako Kontuen Ganbarak 1999ko ekitaldiari buruzko bere azken fiskalizazio-txostenean egindako gomendioen betetze-maila.

III. NORAINOKOA

Kontuen Ganbarak, bere jarduketa-programari jarraikiz, Burlatako Udalaren (aurrerantzean, "Udala") eta haren erakunde autonomoen 2000ko ekitaldiko fiskalizazioa egin du.

Udalak kontabilitate publikoaren sistema ezarria dauka, irailaren 21eko 271/1999 Foru Dekretuari egokitutako Toki Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorriari jarraituz. Dekretu haren bitartez, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea garatzen da aurrekontu-egiturari dagokionez.

Eginiko lanaren aztergai nagusia dirusarreraren eta gastuen kapitulu ekonomikoen eta ondare-masen berrikuspena izan da, eta antolaketa, kontabilitate eta barne kontrolari dagozkien puntuak aztertu ditugu.

Hirigintza arloari dagokionez, planeamendua- ren betetzeari buruzko ikuskapen bat egin dugu eta haren aldaketak eta aurreikuspenen betetze-maila aztertu ditugu.

Espaniako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko fiskalizazio printzipioei eta araei jarraituz eta, baldintzen arabera, beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz egin dugu lana.

Udalaren eta haren erakunde autonomoen antolaketa, barne kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak bildu ditu txostenak.

Azterketa lana 2001eko maiatz eta ekainean egin dugu.

Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

IV. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Burlatako Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2000ko ekitaldiko finantzen egoera-orriak aztertu ditugu. Udalaren ardurapean eginak dira, eta txosten honetako V. atalean jaso ditugu, laburbilduta.

Gure azterketan, Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak sektore publikoaren auditoretzarako onetsiriko arau eta prozedurak aplikatu ditugu.

Eginiko azterketan oinarrituz, hona gure iritzia:

IV.1. BURLATAKO UDALA

IV.1.1. 2000ko aurrekontuaren likidazioari dagokionez

Honekin batera doan 2000ko aurrekontuaren likidazioari buruzko egoera-orriak egoki agertzen du fiskalizaturiko ekitaldian udalak eginiko eragiketa-multzoa. Hala ere, aurrekontu-egozketa okerrak badaude, hala ekonomiaren nola denboraren ikuspegitik. Alabaina, ez dute eraginik udalak eginiko jardueraren agerpen orokorrean.

2000ko ekitaldiko aurrekontua 2000ko abuztuaren 29an onetsi zuen hasiera batez Udaleko Osoko Bilkurak, lege ezarritako epeaz kanpo. 2001eko maiatzaren 14an, Nafarroako Administrazio Auzitegiak ebazpen bat igorri zuen, zeinaren bitartez baietsi egin baitzuen Burlatako zenbait zinegotzik onespene-erabakiaren aurka aurkeztutako gora jotzeko errekurtsioa; haren bitartez, erabakiaren deuseztapena eskatzen zen, aurrekontuen taxutzea ez baitzen legearen arabera izan; 2000ko ekitaldirako plantilla organikoa onetsi gabe zegoela alegatu zen. 2000ko ekitaldirako aurrekontua 2001eko abuztuan onetsi da, plantilla organikoarekin batera.

IV.1.2. 2000ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena

2000ko abenduaren 31ko egoera-balantzeak nahiko ongi agertzen du Udalaren ondare-egoera, honako salbuespenarekin: udal inbentarioa eguneratuta ez egotea –1995ekoa da–.

IV.1.3. Legezketasuna

Oro har, Udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa legezketasun printzipioari jarraikiz egin da. Dena den, administrazio-kontratazioaren, aurrekontuen eta kontabilitatearen arloei buruzko araudia hainbat puntutan urratu dela antzeman dugu, eta horri buruzko iruzkinak egin ditugu txosten honetan zehar.

IV.1.4. 2000ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko eta finantzarioa

Burlatako Udalak 2000ko abenduaren 31n agertzen duen finantza-egoerari buruz aipatzekoa da epe luzeko zorraren zenbateko handia –1.416 milioi pezeta– eta aurrezpen garbi ngatiboa –ehuneko 1–; zorpetze maila gauditurik dago.

Horrek erakusten du halako zalantza bat dagoela Udalak bere gastu arruntei aurre egin eta epe luzeko zorra ordaindu ahal izateko adina baliabide sortzeko duen gaitasunari buruz, epe laburrean egungo joera ekonomiko eta finantzarioa aldatzen ez bada.

IV.1.5. Kontuen ganbarak egin zuen aurreko fiskalizazio txostenean, alegia, 1999ko ekitaldiari buruzkoan, eskaini ziren gomendioen betetzea

Aurreko txostenetan eginiko gomendioen gauzatzeaz denaz bezainbatean, ondoko alderdi hauek aipatu nahi ditugu:

- 2000ko ekitaldian zehar, Udalak hainbat ekin-tza abiarazi ditu aurreko txostenean eginiko gomendioak gauzatzeko; zehazki, inbentarioarekin eta administrazio-kontratazioarekin zerikusia daukaten puntuei dagokienez.

- Bestalde, ikusi ahal izan dugu 2000ko ekitaldian Udalak abiarazi egin duela aurreko Hirigintza Antolatze Plan Orokorra (HAPO) ordeztu eta egungo legeen arabera izan den udal plan bat taxutzeko adjudikazio prozedura.

IV.2. ERAKUNDE AUTONOMOAK

IV.2.1. Udalaren Musika Eskola

Gastuen eta dirusarreraren aurrekontuaren likidazioak nahiko ongi agertzen du Eskolak eginiko jarduera.

Oro har, Eskolak bere jardura legezketasun printzipioari jarraikiz egin du.

IV.2.2. Udalaren Kirol Patronatua

Aurkeztu den gastuen eta dirusarreraren likidazio-orriak nahiko ongi agertzen du Patronatuak eginiko jarduera.

Oro har, Patronatuak bere jardura legezketasun printzipioari jarraikiz egin du.

IV.2.3. Kultura eta Jaietarako Udal Patronatua

Gastuen eta dirusarreraren aurrekontuaren likidazioak nahiko ongi agertzen du Patronatuak eginiko jarduera.

Indarreko araudia hainbat puntutan urratu dela ikusi dugu; nagusiki, administrazio-kontratazioaren arloan.

Laburbilduz, eta ondorio orokor gisa, hona gure gomendioak:

- *Aurrekontu-kudeaketako barne kontroleko prozedurak indartu eta osatzea, eginiko eragiketarik ziurtatu eta bermatzeko; nagusiki, saldoak adostu eta berrikusteari, kontabilitate-printzipioei eta inbentarioak eguneratzeari dagokienez.*

- *Administrazio-kontratazioari buruzko araudia zorrozki betetzea, bereziki kontratazio-espeditentak formalizatzeari, kontratuak esleitzean lehiakortasun printzipioa aplikatzeari eta obren jarraipena aurrekontuen eta kontabilitatearen ikuspegitik egiteari dagokienez.*

- *Langileria-kudeaketaren azterketa orokorra egitea, honako hauek ikertuz: langileria departamentua eratzea komenigarria ote den, plantilla egokitua ote dagoen Udalaren beharriari, proposituriko lan-kargak eta ordainsariak nahiz gainerako gizarte-gastuak.*

- *Sektore publikoaren kontabilitateari buruzko plan orokorrak ezartzen duen urteko oroit-idazkia egitea.*

- *Finantza bideragarritasunari buruzko plan bat egitea, hurrengo ekitaldietarako, gastu arrunta kontrolatuz eta zorpetze maila gainditzea saihestuz.*

- *Bestalde, erakunde autonomoek dagokienez, horietako bakoitzari esleitzen zaizkion eginkizunak argi definitu behar dira, bakoitzaren benetako autonomia-maila zehaztu behar da, eta Udalak*

euren jardueraren gainean bete behar dituen kontrol, kontu-hartzailatza eta tutoretza prozedurak ezarri behar dira.

- *Azkenik, Kultura Patronatua deszentralizaturiko udal zerbitzu bilakatzea aztertu beharreko gaitar bat da, kudeatzen dituen baliabideen ehuneko 90 baino gehiago Udalaren beraren ekarpena baitira.*

V. FINANTZEN EGOERA-ORRIAK

Jarraian, udalaren eta bere erakunde autonomoen finantzen egoera-orriak azalduko ditugu. Azalpenaren erosotasunerako, aipamena honako hauetara mugatuko dugu:

V.1. UDALA

- *Gastuen eta dirusarreraren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera.*

- *Gastuen aurrekontuaren likidazioa, sailkapen ekonomiko-funtzionalaren arabera.*

- *2000ko abenduaren 31ko egoera-balantzea.*

- *2000ko abenduaren 31ko diruzaintza-gerakina.*

V.2. ERAKUNDE AUTONOMOAK

- *Gastuen eta dirusarreraren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera.*

Burlatako Udala

2000ko dirusarrerren aurrekontuaren betetzea

Kapitulua	Hasierako aurre- ikuspena	Alda- ketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitorturiko eskubideak	Aitorturiko eskubideak	Kobratuta	Kobra- tzeke	Betetzearen %	Aitorturiko guztizko- aren %
1- Zuzeneko zergak	358.371	-	358.371	418.883	2.518	345.366	73.517	117	27
2- Zeharkako zergak	93.070	-	93.070	18.389	111	15.474	2.915	20	1
3- Tasak eta bestelako dirusarrerak	85.940	-	85.940	80.884	486	66.229	14.655	94	5
4- Transferentzia arruntak	1.031.506	2.047	1.033.553	766.807	4.609	747.697	19.110	74	49
5- Ondare dirusarrerak	23.100	-	23.100	20.200	121	15.135	5.065	87	1
6- Inbertsio errealen besterentzea	-	-	-	8.153	49	8.153	-	-	1
7- Kapital transferentziak	285.399	193.800	479.199	-	-	-	-	-	-
8- Finantza-aktiboen aldaketa	3.387	82.521	85.908	1.827	11	1.827	-	2	-
9- Finantza-pasiboen aldaketa	482.732	362.478	845.210	235.000	1.412	235.000	-	28	16
Dirusarrerak, guztira	2.363.505	640.846	3.004.351	1.550.143	9.317	1.434.881	115.262	52	100

2000ko gastuen aurrekontuaren betetzea

Kapitulua	Hasierako aurre- ikuspena	Alda- ketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitorturiko obligazioak	Aitorturiko obligazioak	Ordainduta	Ordain-Betetzearen tzeke	%	Aitorturiko guztizko- aren %
1- Langileen ordainsariak	918.099	6.500	924.599	756.406	4.546	748.570	7.836	82	48
2- Ondasun arrunt. eta zerb. eros	244.592	2.384	246.976	199.737	1.200	150.868	48.869	81	13
3- Korrituak	72.443	(9.800)	62.643	47.371	285	47.305	66	76	3
4- Transferentzia arruntak	213.853	5.222	219.075	207.546	1.247	184.474	23.072	95	13
6- Inbertsio errealak	777.196	633.040	1.410.236	234.705	1.411	136.690	98.015	17	15
7- Kapital transferentziak	23.992	-	23.992	2.152	13	2.152	-	9	0
8- Finantza-aktiboen aldaketa	8.801	-	8.801	4.849	29	4.849	-	55	0
9- Finantza-pasiboen aldaketa	104.529	3.500	108.029	106.914	643	106.914	-	99	8
Gastuak, guztira	2.363.505	640.846	3.004.351	1.559.680	9.374	1.381.822	177.858	52	100

2000ko aurrekontu betetzea, kode funtzional/ekonomikoaren ikuspegitik
(pezetak, milakotan)

Funtzionala/Deskribepena	Langieria- gastuak	Ondasun aruntak eta zerbitzuak	Finantza- gastuak	Transferentzia aruntak	Inbertsio erreak	Kapital transferentziak	Finantza- akzioak	Finantza- postuak	Aitoruntiko obligazioak, guztira	Ehunekoa, guztizkoaren gainean
01- Zor publikoa	0	0	47.171	0	0	0	0	106.914	154.085	10
11- Gobernu-organok	18.815	891	0	0	0	0	0	0	19.706	1
12- Administrazio orokorra	33.520	46.756	0	730	2.742	0	1.200	0	84.948	5
22- Segurtasun eta babes zibila	133.063	11.400	0	0	2.583	0	0	0	147.046	9
31- Segurtasun eta babes soziala	332.474	8.092	0	14.724	421	0	0	0	355.711	23
32- Gizarte-sustapena	103.370	27.993	0	4.847	3.616	0	0	0	139.826	9
41- Osasuna	0	1.751	0	0	0	0	0	0	1.751	0
42- Hezkuntza	16.650	23.518	0	33.920	1.782	0	0	0	75.870	5
43- Hirigintza	66.008	58.190	0	12.847	78.323	0	0	0	215.368	14
44- Komunitate-organizazioak	15.119	4.687	0	17.431	0	0	0	0	37.237	2
45- Kultura eta kirola	5.995	5.744	0	116.976	144.948	2.152	3.649	0	279.464	18
46- Bestelako komunitate- eta gizarte-zerb.	0	1.282	0	6.071	0	0	0	0	7.353	1
51- Oinarrizko azpiegiturak eta garrarioak	0	0	0	0	290	0	0	0	290	0
61- Araupetze ekonomikoa	31.392	9.433	200	0	0	0	0	0	41.025	3
Guztira	756.406	199.737	47.371	207.546	234.705	2.152	4.849	106.914	1.559.680	100

Burlatako Udala
2000ko abenduaren 31ko egoera-balantzea

AKTIBOA	Pezetak, milakotan	Euroak, milakotan	PASIBOA	Pezetak, milakotan	Euroak, milakotan
IBILGETUA	5.604.744	33.685	ONDAREA	3.620.613	21.760
Ibilgetu materiala	3.536.604	21.255	Ondarea	2.255.177	13.554
Lurra eta ondasun naturalak	602.857	3.623	Aplikatzeko dauden emaitzak	1.365.436	8.206
Eraikinak	2.704.246	16.253			
Makinak, instalazioak eta tresnak	55.751	335	KAPITAL DIRULAGUNTZAK	880.174	5.290
Garraio-elementuak	31.894	192	Jaso diren kapital dirulaguntzak	880.174	5.290
Altzariak	109.630	659			
Informazio-prozesuetarako ekipoak	22.912	138	EPE LUZEKO ZORRAK	1.416.349	8.512
Bestelako ibilgetu materiala	7.882	47	Jasotako maileguak	1.416.349	8.512
Bideango ibilgetua	1.432	8			
Ibilgetu ez-materiala	1.863	11			
Jabetza intelektualak	1.827	11			
Bestelako ibilgetu ez-materiala	36	-			
Erabilera orokorreko ondasunak eta inb.	2.062.128	12.394	EPE LABURREKO ZORRAK	256.713	1.543
Lurra eta ondasun naturalak	1.608.707	9.669	Aitortutako betebeharren ondoriozko hartzek.	33.537	202
Herri-ondasunetako inbertsioak	453.421	2.725	Agindutako ordainketen ondoriozko hartzek.	182.045	1.094
Finantza-ibilgetua	4.149	25	Entitate publikoak	17.123	103
Emandako maileguak	3.649	22	Aurrekontuz kanpoko bestelako hartzekodunak	24.004	144
Kotizazio ofizialik gabeko akzioak	500	3	Aplikatzeko dauden kontusailak	4	-
ZORDUNAK	310.505	1.866	EMAITZAK	32.923	198
Aitorturiko eskubideen ondoriozko zordunak	309.602	1.861	Ekitaldiko emaitzak	32.923	198
Aurrekontuz kanpoko bestelako zordunak	903	5			
KONTU FINANTZARIOAK	291.523	1.752			
Aldi baterako finantza-inbertsioak	495	3			
Kutxa	1.606	10			
Bankuak eta kreditu erakundeak	289.422	1.739			
AKTIBOA, GUZTIRA	6.206.772	37.303	PASIBOA, GUZTIRA	6.206.772	37.303

Burlatako Udala

Diruzaintza-gerakinaren egoera, 2000ko abenduaren 31n

		(Pezetak, milakotan)
1 (+) Ekitaldi bukaeran kobratzeke dauden zordunak		120.683
Dirusarrerren aurrekontukoak. Aurrekontu indarduna	115.262	
Dirusarrerren aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	194.340	
Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketekoak	902	
Ken kobratzen zailak diren saldoak	(189.821)	
2 (-) Ekitaldi bukaeran ordaintzeke dauden hartzekodunak		(256.709)
Gastu-aurrekontukoak. Aurrekontu indarduna	(177.858)	
Gastu-aurrekontukoak. Itxitako aurrekontuak	(37.724)	
Aurrekontuz kanpoko bestelako eragiketekoak	(41.127)	
3 (+) Ekitaldiaren bukaeran diruzaintzan diren funts likidoak		291.028
5 Finantzaketa atxikia duten gastuei atxikitako diruzaintza-gerakina		154.705
7 Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina (1-2+3+4-5)		297
Diruzaintza-gerakina, guztira		155.002

"Hilarión Eslava" Udalaren Musika Eskola

Gastuen aurrekontuaren betetzea, 2000

Deskribapena	Pezetak, milakotan				Euroak, milakotan	Pezetak, milakotan
	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin-betiko aurrekontua	Aitorturiko obligazioak	Aitorturiko obligazioak	Ordaintzeke
1. Langileria gastuak	71.660	5.333	76.993	76.993	463	1.417
2. Zerbitzuak eta ondasun arruntak erostea	6.952	789	7.741	7.716	46	289
4. Transferentzia arruntak	50	581	631	631	4	-
6. Inbertsio errealak	15.609	(151)	15.458	15.456	93	1.064
Guztira	94.271	6.552	100.823	100.796	606	2.770

Dirusarrerren aurrekontuaren betetzea, 2000

Deskribapena	Pezetak, milakotan				Euroak, milakotan	Pezetak, milakotan
	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin-betiko aurrekontua	Aitorturiko eskubideak	Aitorturiko eskubideak	Biltzeke dagoen dirua
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	25.882	-	25.882	26.000	156	24
4. Transferentzia arruntan bidezko dirusarrerak	68.389	6.552	74.941	76.557	460	15.705
Guztira	94.271	6.552	100.823	102.557	616	15.729

Kirolen Udal Patronatua
Gastuen aurrekontuaren betetzea, 2000

Deskribapena	Pezetak, milakotan			Euroak, milakotan		Pezetak, milakotan
	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin-betiko aurrekontua	Aitorturiko obligazioak	Aitorturiko obligazioak	Ordaintzeke
1. Langileen ordainsariak	83.570	3.595	87.165	86.551	520	890
2. Zerbitzuak eta ondasun arruntak erostea	61.600	(1.072)	60.528	59.365	357	7.447
3. Interesak	150	-	150	117	1	-
4. Transferentzia arruntak	14.900	-	14.900	14.369	86	5.452
6. Inbertsio errealak	4.468	1.977	6.445	6.398	38	-
8. Finantza-aktiboen aldaketa	800	-	800	800	5	-
Guztira	165.488	4.500	169.988	167.600	1.007	13.789

Diru-sarrerren aurrekontuaren betetzea, 2000

Deskribapena	Pezetak, milakotan			Euroak, milakotan		Pezetak, milakotan
	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin-betiko aurrekontua	Aitorturiko eskubideak	Aitorturiko eskubideak	Biltzeke dagoen dirua
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	100.660	4.500	105.160	108.945	655	2.504
4. Transferentzia arrunten bidezko dirusar.	63.028	-	63.028	61.777	371	2.479
5. Ondare bidezko dirusarrerak	1.000	-	1.000	1.041	6	-
8. Finantza-aktiboak	800	-	800	840	5	-
9. Finantza-pasiboak	5.415	-	5.415	3.649	22	-
Guztira	170.903	4.500	175.403	176.252	1.059	4.983

Kultura eta Jaietarako Udal Patronatua
Gastuen aurrekontuaren betetzea, 2000

Deskribapena	Pezetak, milakotan			Euroak, milakotan		Pezetak, milakotan
	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin-betiko aurrekontua	Aitorturiko obligazioak	Aitorturiko obligazioak	Ordaintzeke
1. Langileak	16.949	-	16.949	16.820	101	11
2. Zerbitzuak eta ondasun arruntak erostea	39.765	-	39.765	36.002	216	5.706
4. Transferentzia arruntak	10.456	-	10.456	10.404	62	782
6. Inbertsio errealak	870	-	870	682	4	-
Guztira	68.040	-	68.040	63.908	383	6.499

Diru-sarrerren aurrekontuaren betetzea, 2000

Deskribapena	Pezetak, milakotan			Euroak, milakotan		Pezetak, milakotan
	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin-betiko aurrekontua	Aitorturiko eskubideak	Aitorturiko eskubideak	Biltzeke dagoen dirua
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	950	-	950	390	2	-
4. Transferentzia arrunten bidezko dirusar.	63.450	-	63.450	64.498	388	1.025
8. Finantza-aktiboak	3.640	-	3.640	-	-	-
Guztira	68.040	-	68.040	64.888	390	1.025

VI. BURLATAKO UDALARI BURUZKO IRUZKIN, ONDORIO ETA GOMENDIOAK

VI.1 2000ko AURREKONTUAREN BETETZEARI BURUZKO IRUZKIN OROKORRAK

• Gastuen eta dirusarrerren 2000ko aurrekontuan 2.364 milioi pezetako hasierako kredituak daude. Hasierako aurreikuspen horiek hainbat aurrekontu-aldaketa jasan dituzte gastu eta dirusarreretan. Aldaketa horien zenbatekoa 641 milioi pezetakoa da, eta, funtsean, aurreko ekitaldiko diruzaintzako gerakina kontuan hartzearen ondoriozkoak dira.

Beraz, behin betiko aurreikuspenak edo aurrekontu bateratua 3.004 milioi pezetakoak dira gastu eta dirusarrerren arloan.

• Aitorturiko obligazioak 1.560 milioi pezetakoak dira, eta ehuneko 52ko betetze-maila daukate. Hori azaltzen duena, nagusiki, inbertsioen kapituluaren betetze-maila da –ehuneko 17koa; hau da, 1.176 milioi pezeta gutxiago inbertsioetan, nahiz eta horietako batzuk 2001eko ekitaldian exekutatzeko ari diren–. 2000ko behin betiko aurrekontuan aurreikusi diren eta ekitaldi horretan exekutatu ez diren inbertsiorik garrantzitsuenak honako hauek dira: igerileku estalia, kultur etxea eta haur eskola.

Ehunekoetan, honela xehekatzen dira:

Gastuak	Ehunekoa	
	2000	1999
Funtzionamendukoak	77	80
Inbertsiokoak	15	9
Finantza-zamakoak	8	11
Guztira	100	100

Ikus daitekeenez, gastu-elementurik garrantzitsuena funtzionamendu-gastuei dagokiena da –langileak, ondasun eta transferentzia arruntak–, Udalak gastatzen dituen 100 pezeta bakoitzeko 77 hartzen baititu (80 pezeta, 1999an), eta langileentzat, zehazki, 48 pezeta erabili dira (54 pezeta 1999an). Inbertsio errealean kapituluaren, aipatzekoa da bere garrantzi erlatiboak gora egin duela aurreko ekitaldiarekin alderatuz; batez ere, igerileku estaliaren exekuzio maila altua dela eta.

Langileez denaz bezainbatean, azpimarratzekoa da 2000ko plantilla organikoa ez dela onetsi; hori dela eta Udalak aurreko ekitaldikoaz baliatu da, baina enplegatutako bakoitzari dagozkion ordainsari eta kategorietan eginiko aldaketak errespetatuz. 1. eranskinean Udalaren organigrama ageri da, 1999ko plantilla organikoaren arabera –2000. urteko ekitaldirako ere luzatua–, aipatu berri ditu-

gun aldaketak barne. Berriki, plantilla organikoa eta aurrekontua onetsi egin dira, 2001eko abuztuaren 16an.

2000ko eta 1999ko abenduaren 31n Udalaren zerbitzuan zihardutenak honako hauek dira:

Izaera	Kopurua	
	2000	1999
Funtzionarioak	67	67
Lan-kontratadun finkoak	19	19
Behin-behinekoak eta programak	95	135
Guztira	181	221

Administrazio eta kontabilitatearen arloan 21 pertsonak lan egiten dute, idazkaria eta kontu-hartzailea barne.

Goi-karguen ordainsariak 18,8 milioi pezetakoak dira 2000n (11,6 milioi pezeta 1999an).

• Aitorturiko eskubideei dagokienez, 1.550 milioi pezetakoak dira. Betetze-maila ehuneko 52koa da, eta, funtsean, horren azalpena hau da: kapital transferentzietan buruzko kapituluaren betetze-maila –aurreikusitako zenbatekoa, 479 milioi pezeta, eta kontzeptu hori dela-eta aitorturiko eskubideen kopurua zero izatea–, finantza pasiboan aldaketen kapituluaren aurreikusitakoak 845 milioi pezeta izan ziren, aitorturikoak 235 milioi pezeta baziren ere–. Bai mailegu horiek bai 2000ko ekitaldirako aurreikusirik zeuden baina eskuratu ez ziren kapital transferentzietan xede zuten lehen aipaturiko inbertsioak finantzatzea; inbertsio horiek, partzialki, 2001eko ekitaldian egiten ari dira.

Dirusarrerren osaera, ehunekoetan, hau da:

Dirusarrerak	Ehunekoa	
	2000	1999
Tributu bidezkoak	33	36
Transferentzien bidezkoak	49	63
Ondarearen ondoriozkoak	2	1
Finantza bidezkoak	16	-
Guztira	100	100

Gaineko taulan ikus daitekeenez, finantza-iturri nagusiak transferentziak –aitorturiko 100 pezeta bakoitzeko, 49 pezeta finantza-iturri horretatik hartzen dira– eta tributu dirusarrerak dira –ehuneko 33 egiten dute–. Bestalde, aipatzekoa da ondarearen ondoriozko dirusarrerren igoera handia, 235 milioi pezetako kreditu berri bati esker: kopuru

horrek 2000ko ekitaldian aitorturiko eskubideen ehuneko 16 egiten du.

Hartutako 235 milioi pezetako kredituari dagokionez, Udalak 2000ko abenduaren 31n kobratuta bezala erregistratu du eman zitzaizen zenbateko osoa eta ez data hartan erabilitakoa, hain zuzen ere 79 milioi pezeta 2000ko abenduaren 31n. Horrenbestez, jasotako kobrantzen kopurua eta diruzaintzakoa gainbalioetsirik daude 156 milioi pezetatan, data horretan.

Ondoko taulan agertzen dira tributu-figura nagusiak eta horiek 2000n eta 1999an daukaten zenbateko aitortua (milioi pezetatan):

Tributu-figura	Zenbatekoa	
	2000	1999
Hirilur kontribuzioa	206	201
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	55	52
Lurzoruaren balio-gehikuntzaren gaineko zerga	60	17
Hegalkinaren okupazioa	21	20
Hilerria	7	4
Ibilgailuetarako pasabideak	7	6
Hirigintza-lizentziak	3	11
Irekiera-lizentziak	7	6
Eraikin, instalazio eta obren gaineko zerga	18	73
Ibilgailuen zirkulazioaren gaineko zerga	97	86

Aipatzekoa da hirilur kontribuzioaren garrantzia berezia, gainontzeko tributu-figurena baino handiagoa baita, alde handiz. Bestalde, azpimarratu behar da Lurzoruaren balio erantsiaren gaineko zergaren dirubilketa handiagoa eta Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren (EIOZ) dirubilketaren jaitsiera. Lehenbizikoa zor zaio Udalak zerga-tasa igo izanari (ehuneko 14tik 16ra) eta ekitaldian zehar eskualdaketa gehiago gertatu zianari; EIOZaren jaitsierari dagokionez, obra gutxiago egin izanari zor zaio, aurreko ekitaldiko zergatasari eutsi baitzaio.

Udalak ordainarazitako zergei dagokionez, jarraian agertzen da, zerga-moten arabera, zein diren Udalak aplikaturiko tarifak, Toki Ogasunei buruzko Foru Legeak baimentzen dituen gehiengo kopuruekin alderatuta:

Tributu-figura	Ehuneko/Indizea	
	Udala	Toki Ogasunei buruzko Legea
Hirilur kontribuzioa	0,373	0,10 - 0,50
Landalur kontribuzioa	0,70	0,10 - 0,80
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,35	1 - 1,4
Lurzoruaren balio-gehikuntzaren gaineko zerga	16	8 - 20
• 5 urte bitartean	3	2,2 - 3,3
• 10 urte bitartean	2,9	2,1 - 3,2
• 15 urte bitartean	2,7	2,0 - 3,1
• 20 urte bitartean	2,7	2,0 - 3,1
Eraikinak, instalazioak eta obrak	5	2 - 5

Udalak ez ditu ordainarazten luxuzko gastuen gaineko zergak, ezta etxebizitza hutsen gainekoak ere; izan ere, gaur egungo legeriaren arabera, horiek aukerakoak dira toki entitatearentzat.

- 2000ko betetze-egoerak 10 milioi pezetako aurrekontu-defizita agertzen du (75 milioi pezetako defizita 1999an), eskubideen eta aitorturiko betebeharren arteko aldearen ondorioz. Saldo horri finantzaketa-desbiderapenen ondorioz eta 1999ko diruzaintza-gerakin likidoaren gehitzearen bidezko finantzaketaren ondorioz behar ziren doikuntzak egiten baldin bazaizkio, ekitaldiko aurrekontu-emaizta 64 milioi pezetako defiziteraino igotzen da (107 milioi pezetako superabita 1999an).

- 2000ko abenduaren 31n ordaintzeke dauden kopuruak –gastuen erresultak– 216 milioi pezetakoak dira, eta, horietatik, 38 milioi pezeta aurreko ekitaldietatik datoz. Kobratzeke dauden kopuruek –dirusarreraren erresultak– guztira 309 milioi pezetako zenbatekoa egiten dute, eta 194 milioi pezetan jatorria aurreragoko ekitaldietan dago.

- 2000ko abenduaren 31ko diruzaintza-gerakina 155 milioi pezetakoa da (295 milioi pezeta 1999an), eta honako hauen emaitza da: ordaintzeke dauden 257 milioi pezetako zorrak, kobratzeke dauden 121 milioi pezetako dirusarrerak eta 291 milioi pezetako funts likidoak. Itxitako aurrekontuetan kobratzeke dauden kopuruak ehuneko 98 inguru kobratzen zailtzat jotzen dira. Diruzaintza-gerakin ia osoa finantziario atxikia duten gastuei atxikitako gerakinari dagokio.

- Azkenik, hurrengo taulan erakusten da, ehunekoetan, 2000ko eta 1999ko gastu-aurrekontuaren betetzea, eginkizunen arabera xehekatutik:

Deskribapena	Ehunekoak	
	2000	1999
Zor publikoa	10	11
Gobernu-organoak	1	1
Administrazio orokorra	5	6
Segurtasun eta babes zibila	9	11
Segurtasun eta babes soziala	23	24
Gizarte-sustapena	9	11
Hezkuntza	5	5
Etxebizitza eta hirigintza	14	13
Komunitate-ongizatea	2	2
Kultura eta kirola	18	12
Bestelako komunitate-eta gizarte-zerbitzuak	-	1
Araubide ekonomikoa	4	3
Guztira	100	100

Datu horiei buruzko azterketatik, azpimarratzekoa da 2000ko ekitaldirako Udalaren gastuaren ehuneko 58 gizarte-segurantzian eta babesean, etxebizitza eta hirigintzan eta kultura eta kirolean kontzentratzen direla.

VI.2 2000KO ABENDUAREN 31KO FINANTZA-EGOERA.

2000n, Udalak honako ratio edo adierazleak dauzka, 1999ko datuekin konparatuta:

Adierazleak	2000 (1)	1999 (1)
Aurrekontu-superabita(defizita) (pezetak, milioitan)	(10)	75
Dirusarrerak biztanle bakoitzeko (pezetatan)	90.514	85.026
Gastuak biztanle bakoitzeko (pezetatan)	91.071	80.548
Finantza-zama biztanle bakoitzeko (pezetatan)	9.009	9.039
Tributuen bidezko dirusarrerak biztanle bakoitzeko (pezetatan)	30.256	30.409
Kobrantez betetzea (ehunekoetan)	93	83
Ordainketen betetzea (ehunekoetan)	89	92
Zorpetze-maila (ehunekoetan)	13	11
Zorpetze-muga (ehunekoetan)	11	19
Aurrezki garbia (ehunekoetan)	(1)	8
Langileria-indizea (ehunekoetan)	48	54
Inbertsio-indizea (ehunekoetan)	15	9
Diru-laguntzekiko menpekotasuna (ehunekoetan)	49	63

(1) Kalkulua egiteko, 2000rako 17.126 biztanleko populazioa aintzat hartu da, 2000ko ekainaren 9ko udal erroldari jarraituz; 1999rako, 16.771 biztanlekoa, 1999ko apirilaren 12ko erroldari jarraituz..

Datu horien azterketatik, honako hauek azpimarratu behar ditugu:

- 2000ko ekitaldian, aurrekontu-emaizak 85 milioiko jaitsiera izan du 1999koarekiko. Horren

azalpen partziala izan liteke aipaturiko ekitaldian eginiko inbertsioen beherakada.

- Biztanle bakoitzeko dirusarrerak ehuneko 6 igo dira 2000n aurreko ekitaldiarekiko. Gastuek, ordea, ehuneko 13 egin dute gora, eta horrek ere ager lezake emaitzak gora egin izana.

- Zorpetze-mugak 2000n izandako jaitsieraren zergatia, funtsean, langileria gastuen igoera, ondasun eta zerbitzuen erosketa eta transferentzia arruntak –batez ere, erakunde autonomoi egindakoak– izan dira; jaitsiera hori funtzionamendu-gastuen gorakadak ez du guztiz estali. Bestalde, zorpetze-mailak gora egin du aurreko ekitaldi-koaren aldean, eta horrek, zorpetze-mugaren jaitsierarekin batera, Udaleko aurrezki garbiaren jaitsiera azaltzen du.

- Azpimarratzekoa da Udalaren 2000ko ekitaldiko zorpetze maila zorpetze muga baino handiagoa izan dela.

- Langileria-indizeak behera egun du, langileria-gastuek ehuneko 3 gora egin badute ere, funtsean, inbertsio-indizeak gor egin duelako; horrek berekin ekarri du gainerako gastu-kontzeptuek guztizkoan ehuneko txikiagoa egitea.

- Dirulaguntzekiko mendetasun ratioari dagokionez, aurreko ekitaldiarekiko jaitsi da, batez ere aurreko Udalak ez duelako kapital transferentziarik jaso.

2000 eta 1999ko abenduaren 31ko finantza-egoerei dagokienez, milioika pezetatan adieraziko dugu ondoko adierazleen zenbatekoa:

Adierazleak	2000	1999
Diruzaintza-gerakina	155	295
Epe luzerako zorra	1.416	1.288

Hau da, 2000n diruzaintza-gerakinak epe luze-ko zorraren ehuneko 11 hartu du (1999an, ehuneko 23), eta finantza-iturri eskas samarra da Udalak aurreikusitako inbertsioetarako. Izan ere, inbertsio horiei ekin ahal izateko mailegu berriak lortzea aurreikusten du Udalak.

2000an zehar Udalak diruzaintza-gerakina murriztu egin du eta epe luze-ko zorra igo egin da. Halaber, aurrezki gordina eta aurrezki garbia jaitsi egin dira, bai zenbateko absolutuetan, bai termino erlatiboetan, funtsean dirusarrera arruntak igo direlako funtzionamendu -gastuen gorakadak baino ehuneko handiagoan.

2000n zehar izandako bilakaera hori negatiboa izan da Udalaren finantza-egoerarako; horregatik, gure iritziz Udalak joera horri buelta eman behar

dio, dirusarrera arrunt gehiago sortuz, bere funtzionamendu-gastuak murriztuz eta epe luzerako zorrak berez duen zenbateko handia igotzerakoan jokabide zuhurra areagotuz.

2000ko abenduaren 31n itzultzeke dauden maileguen ezaugarri nagusien xehekapena eginen dugu jarraian:

Entitatea	Abenduaren 31n itzultzeke dagoen zenbatekoa	Interes tasa %	Epemuga
Nafarroako Kutxa (*)	26.106	6,049%	2009
Nafarroako Kutxa	309.638	5,700%	2006
Nafarroako Kutxa (*)	24.265	9,500%	2018
Nafarroako Kutxa	388.515	5,200%	2011
Nafarroako Kutxa	156.479	5,730%	2012
Nafarroako Kutxa	53.680	5,940%	2004
Nafarroako Kutxa (*)	222.666	4,750%	2016
BBVA	235.000	5,270%	2015
Guztira	1.416.349		

(*) Hipoteka-bermea.

Azkenik, jarraian agertzen dugun taulan konparaturik agertzen dira, hainbat ratori dagokionez, Burlatako Udaleko 2000ko eta 1999ko informazioa eta biztanleria-tarte berekoak diren Nafarroako udalen 1998rako batez bestekoa¹.

Ratioak	1998an 10.000tik 50.000 biztanlera bitartekoak		
	ziren udalak	2000	Burlata 1999
Gastu arrunta biztanle bakoitzeko (pezetatan)	83.916	70.714	67.593
Dirusarrera arrunta biztanle bakoitzeko (pezetatan)	87.380	75.030	79.665
Tributu bidezko dirusarrera biztanle bakoitzeko (pezetatan)	46.197	30.256	30.409
Zorpetze-muga (ehunekotan)	17	11	19
Zorpetze-maila (ehunekotan)	6	13	11
Zorpetze-ahalmena (ehunekotan)	11	(2)	8

Konparazio honen mugak gogoan izanik², zeinak bereziki garrantzitsuak baitira Burlataren kasuan, honako hauek dira jakingarri behinenak:

- Burlatan, biztanle bakoitzeko gastu eta dirusarrera arruntak nabarmenki baxuagoak dira biztanleria-tarte bereko Nafarroako udalen batez bestekoa baino.

- Burlatako biztanleengandik lortzen diren tributu bidezko dirusarrerak baxuagoak dira, ehune-

ko 34 baino neurri handiagoan, bere tarteko udalen batez bestekoa baino.

- Bere zorpetze-muga eta ahalmena batez bestekoa baino baxuagoak dira; zorpetze-maila, ordea, handiagoa.

VI.3 GORABEHERAK

Udalak eskuratu digun informazioaren arabera, ebazteke dauden errekurtsorik garrantzitsuenak langileria-arloko aferei buruzkoak dira. Eskuarki, plantilla organikoa, ordainsari osagarriak eta gradu nahiz maila aitortpenak onesteko Osoko Bilkurak harturiko erabakien edo Alkatetzak emandako ebazpenen aurka aurkezten dira. Errekurtsio horietatik erator litezkeen gorabehera ekonomikoak zenbatestea ezinezkoa da.

VI.4 ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

Atal honetan xehekaturik agertuko ditugu, alde batetik, hornidurak erosi eta zerbitzuak emateari buruzko alderdiak eta, bestalde, inbertsioak.

VI.4.1. Hornidurak erosi eta zerbitzuak ematea

Erosketa-sisteman eginiko laginketan oinarrituz, honako gomendio orokor hau egin nahi dugu:

- *Udalari eta erakunde autonomoei aplikaturiko erosketa-prozedura idatziz garatzea, eta aholkularitza juridikoak nahiz udaleko kontu-hartzaitzak araudiari jarraituz bete beharreko eginkizuna berariaz zehaztea.*

Kontratazio-espeditenteak aztertu ondoren, azpimarratzekoa da ezen, zenbaitetan, horiek ez dutela biltzen araudiak eskaturiko dokumentazio guztia.

Bestalde, Udalak ez ditu kontratu bidez gauzaten hirugarrenekin dauzkan harreman guztiak.

- *Kontratazioari buruzko araudia zorrozki aplikatzea dadila gomendatzen dugu.*

VI.4.2. Inbertsioak

2000ko ekitaldian zehar igerileku estalia eta kultur etxea egiteko kontratazioa adjudikatu da.

(1) *Datu hauek Toki Administrazioako Departamentuak emandakoak dira, eta ganbera honek Toki Sektore Publikoari buruzko 1998ko txostenean eman zituen argitara.*

(2) *Gogoraten dugu, bereziki, zerbitzu publikoak emateko modua eta kalitatea.*

Espedientea	Adjudikatzeko prozedura	Pezetak, milioitan
Igerileku estalia	Lehiaketa	267
Kultur etxea	Lehiaketa	466

Bi espediente horiek aztertu ditugu, ekitaldian aitorturiko obligazioen ehuneko 43 egiten baitute. Gainera, aurreko ekitaldietan hasitako proiektu batzuen bilakaera ere berrikusi dugu: 2000ko ekitaldian aitorturiko obligazioen ehuneko 75 hartzeraino iritsi gara.

Ondoren, azterturiko espedienteetatik atera ditugun ondorio eta iruzkin garrantzitsuenak azaldu ditugu:

Igerileku estalia: 1998an hasitako proiektua. Adjudikazioa ez da 2000ko urtarilerara arte egin.

- Espedientean ez da ageri Kontu-hartzailtzak kreditua egoteari buruzko onespina eman duenik.
- Ez dago jasotako proposamenen erregistrorik.
- Espedientean ez da kontratazio mahaiari buruzko dokumentaziorik.
- Proiektuaren adjudikazioa ez da Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu.

Kultur etxea: 1998aren bukaeran hasitako proiektua 2000ko urriaren 5ean adjudikatu zen behin betiko.

- Espedientean ez da kreditua egoteari buruzko Kontu-hartzailtzaren ikusonespenik.
- Espedientean ez dago kontratazio mahaiaren izendapenari buruzko dokumentaziorik, ez eta hark proposamenak jendaurrean irekitzeari buruzko aktarik ere.
- Proiektuaren adjudikazioa ez da Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu.

Bestalde, ikusi ahal izan dugu batzutan proiektuen eta obra-zuzendaritzaren kontratazioak ez duela lehiakortasun printzipioa betetzen.

- *Udaleko langileek eginiko obretarako materialak erosteko baliabideen kudeaketa optimizatzea.*
- *Kontratazio-espedienteetako dokumentazioa behar bezala osatzea.*
- *Administrazio-kontratazioari buruzko araudia zorrozki betetzea, batez ere kontratazio-espedienteak formalizatzeari buruzko alderdi batzuei dagokienez.*

Ilido horretan, azpimarratu behar da Udalak jadanik abiarazi dituela administrazio-kontratazio-

ari buruzko araudia hobeto betetzeko hainbat ekintza.

VI.5 BESTELAKO KUDEAKETA-GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzari dagokionez, Kontuen Ganbararen aburuz Udalak bete behar dituen gomendio nagusiak bere antolaketa, prozedura, kontabilitate eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko.

Hainbat alderdiri dagokionez, aipatzen diren gomendioak ezarrita edo ezarpen-fasean daude 2001eko ekitaldian zehar.

VI.5.1. Antolaketa orokorra

Kontuen Ganbarak hauxe gomendatzen du:

- *Barne Araubideari buruzko Erregelamendu bat egitea, horren bidez Udaleko organo exekutibo-aren eskumenak definitu eta euren artean banatze eta erakunde autonomoekiko harremanak arautzeko.*

- *Plantilla langileria-beharrizanei egokitua ote dagoen jakiteko azterlan bat egitea, plantillaren arrazionaltasuna, lanpostu bakoitzeko lan-zama eta kasu bakoitzeko ordainsari-mailak eta gastu sozialak aztertuz.*

- *Kudeaketarako oinarrizko prozedurak idatziz jaretzea; exekuzio-fase bakoitza identifikatu behar da, eta bakoitzari erantzule bat esleitu behar zaio.*

- *Udalak eta Udal Patronatu bakoitzak zeinek bere gain hartu beharreko gastu eta dirusarrerak argitu eta zehaztea.*

- *Udalak bere erakunde autonomoen ekintzen gain egin beharreko kontrol eta tutoretza behar bezala bermatzeko prozedurak taxutzea.*

VI.5.2. Inbentarioa-ibilgetua

Hauxe gomendatzen dugu:

- *Udal ondasunak (bai jabari publikokoak bai ondarezkoak eta herri-ondasunak) eskriturretan jaso eta erregistratzeko prozesua osatzea.*

- *1995eko udal inbentarioa gaurkotzearekin jarraitzea. Udalak 2000n ekin zion hura gaurkotzeari.*

- *Prozedurak taxutu eta aplikatzea, udal inbentarioaren etengabeko gaurkotzea eta hura kontabilitatearekin konektatua egotea lortzeko.*

- *Ibilgetuko dokumentazioa artxibatze eta altak nahiz bajak kontabilizatzeko prozedurak definitu eta ezartzea, kontu horiei aplikatzekoak diren kontabilitate-irizpideei jarraituz.*

• *Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak berrikusi eta bahetzea, Udalaren ondasunak behar bezala ager ditzaten.*

VI.5.3. Langileak

Arlo honetan eginiko azterketatik, aipatu nahi genuke Udalak ez duela lan kontraturik egiten 28 egun baino gehiagoko lan-harremana izanen ez duten aldi baterako langileekin. Hori dela eta, gomendatu behar dugu lan kontratu bitartez formalizatzea Udalak egiten dituen lan-kontratu guztiak.

Langileria arloko gomendio orokorrak hauexek dira:

• *Azter bedi langileria departamentu bat eratzearen gaia. Departamentu hori arloari dagozkion eginkizunen kudeaketaz –besteak beste, nominak egiteaz– arduratuko litzateke.*

• *Nominak barnean edo kanpoan egitea alde batera utziz, horiek egokiak direla bermatzeko prozedura bat antola bedi. Prozedura horrek behar diren egiaztapen eta barne koherentziako bideak izanen ditu.*

• *Kanpoko aholku-emaileei eskuraturiko dokumentazioa kontrolatu ahal izateko prozedurak ezar bitez.*

• *Osa bedi langileei buruzko administrazio-espeditanteetan dagoen dokumentazioa, espeditante horiek behar den dokumentazio guztia izan dezaten. Zehazki, langileen familia-egoerari buruzko zinpeko aitorenak urtero lor bitez.*

• *Langileen absentismoa zenbatesteko informazioa presta bedi.*

• *Aparteko orduak egiten dituenaz beste pertsona batek baimendu eta onets ditzala.*

• *Ordainsari guztiei araudi fiskala aplikatzea.*

VI.5.4. Tributu bidezko dirusarrerak; tasak; prezio publikoak

Hauxe gomendatzen dugu:

• *Prozedurak taxutu eta sistematikoki aplikatu bitez dirusarreraren kudeaketako datuak egiaztatuta ahal izateko eta datu horiek beren kontabilitate-erregistroekin eta diru-bilketakoekin adostu eta alderatu ahal izateko, horrela kontabilitate- eta aurrekontu-informazioaren segurtasun eta fidagarritasun handiagoak lortzeko.*

• *Tributu-figura bakoitzaren errolden aldaketak formalki onets bitez.*

• *Tasa eta prezio publikoekin ordaintzen diren kostuei buruzko azterketak aldiro gaurkotu bitez.*

VI.5.5. Alderdi orokorrak

Hona gure gomendioak:

• *Gastuak eta dirusarrerak euren sortzapena -ren arabera kontabilizatzea aurrekontuan, aurrekontu-betetzearen jarraipen egokia egin ahal izateko.*

• *Gastuak eta dirusarrerak euren izaera ekonomikoaren arabera egozte aurrekontuari.*

• *Legeek ezarritako epeetan egin eta onets daitezela aurrekontuak, eta likidazioa azkarrago egin dadila.*

• *Aurrekontu-aldaketen espeditanteak behar bezala osatzea, kasu guztietan informazioa idatziz jasoz eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean aurrekontu-aldaketa guztiak argitaratuz, horien kontabilizazio, informazio eta onespenei uneekin denbora -ren aldetik desdoitzerik egon gabe.*

VI.6 HIRIGINTZA

VI.6.1. Alderdi orokorrak

Burlatako Hirigintza Antolamenduko lehen Plan Orokorra (HAPO) 1980an onetsi zen. Gaur egun indarra duena beste HAPO bat da, zeina 1980koaren aldaketa bat baita, 1990ko abenduaren 21ean Nafarroako Hirigintza eta Ingurugiro Batzordeak onetsia. Horren indarraldia hasi zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik aurrera, hau da, 1991ko maiatzaren 20an.

Aipatu beharrekoa da indarreko HAPOa Lurzoruari buruzko aurreko Legearen ezaugarrien arabera dela –hau da, 1976koaren arabera, zeina indargabetua izan baitzen–, Hirigintza araubidea aldatzeari eta lurzoru balioespenei buruzko uztailaren 25eko 8/1990 Legea onetsi ondoren onetsi zen arren.

Ildo horretatik, azpimarratzekoa da 2000ko ekitaldian zehar Udalak indarreko arauen arabera udal plan bat taxutzeko adjudikazio prozedura hasi duela, hain zuzen ere gaur egun indarra duen HAPOa ordeztzeko.

VI.6.2. Azterlan ekonomiko eta finantzarioak/Jarduketa Programak

Udalak ez du azterlan ekonomiko eta finantzarioen idatzizko jarraipen berriazkorik egin, ezta jarduketa-programen betetze-mailari buruzkorik ere.

VI.6.3. Planeamenduaren garapen eta exekuzioa

Kontuen Ganbarak eginiko azken ikuskapenaz geroztik, Burlatako planeamenduaren garapena ia

deuseza izan da. Dena den, planeamenduaren exekuzioa hasieran sustatzen duena ekimen pribatua izan dela eztaba daezina da.

Planeamendu-aldaketei dagokienez, azpimarratzekoa da 1994ko ekitaldiaz geroztik aldaketa puntual bat baizik ez dela onetsi, "N-4" eta "N-17" unitateak ukitzen dituen, eta horren justifikazioa da zenbait instalazio lekuz aldatzea ahalbidetu beharra zegoela, horietan gertatutako sutea zela-eta. Aldaketa horren onspena 1998ko abenduaren 16ko 150. NAO n argitaratu zen.

VI.6.4. Kontabilitatearen eta hirigintzaren arloko betebeharrak

Udalak ez du lurzorua erdal ondarea eratu, eta formalki ere, ondare horretatik lorturiko baliabideak ez daude berariaz atxikirik ondarea gorde, mantendu eta handitzera.

"Orubeen eta eraikinik gabeko lur-sailen erregistroa" ezarrita duen arren, erregistro hori ez dago gaurkotua.

VI.6.5. Hirigintza-kudeaketa

Udalak hirigintza-arloko teknikariak dauzka plantillan; teknikari horien eginkizuna da hirigintza-planeamenduaren kudeaketa eta izapidaketa teknikoa.

Azkenik, aurreko iruzkinetatik honako gomendio hauek ondorioztatzen dira:

- *Ezarritako izaera orokorreko hirigintza-betebeharrak bete bitez.*
- *Azterlan ekonomiko-finantzarioen eta Jarduketaren Programaren betetze-mailari buruzko jarraipen egokia egin bedi.*

VI.7. EUROA SARTZEARI BURUZKO GOGOETAK.

Udalak ongi ezagutzen ditu euroa sartzeak erdal jarduerarako izan ditzakeen arriskuak.

Alderdi hau aplikazio informatikoen hornitzaileekin batera –ANIMSA– aztertzen ari da; beraz, Udalak uste du arrisku horretatik ez dela etorriko erdal jardueran nabarmen eraginen lukeen egoerarik.

VII. ERAKUNDE AUTONOMOAK

VII.1. "HILARIÓN ESLAVA" UDALAREN MUSIKA ESKOLA

"Hilarión Eslava Udalaren Musika Eskola" patronatu edo erakunde autonomoak Burlata eta Atarrabiako udaletan ematen du zerbitzua, eta haren Zuzendaritza Batzordean biak daude ordez-

katuta. 2000n, Eskolak 101 eta 103 milioi pezetako obligazio eta eskubide aitortuak erakusten ditu, hurrenez hurren (79 eta 78 milioi pezeta, hurrenez hurren, 1999ko ekitaldian); horrela, bada, bi ekitaldian bi milioi pezetako defizita sortu da (1999an milioi bat pezetakoa). Hurrengo tauletan zenbateko horiek xeheaturik agertzen dira, izaera ekonomikoaren arabera:

Dirusarrerak	Aitorturiko eskubideak (pezetak, milioitan)		Ehunekoak	
	2000	1999	2000	1999
Matrikulak eta jasotako ordainketak	25	21	24	27
Bestelako dirusarrerak	1	1	1	1
Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza	37	24	36	31
Atarrabiako Udalaren dirulaguntza	14	11	14	13
Burlatako Udalaren dirulaguntza	26	21	25	28
Guztira	103	78	100	100

Gastuak	Aitorturiko obligazioak (pezetak, milioitan)		Ehunekoak	
	2000	1999	2000	1999
Langileak	77	68	76	86
Inbertsioak	16	4	16	5
Funtzionamendua	8	6	8	8
Bestelako gastuak	-	1	-	1
Guztira	101	79	100	100

Aurreko tauletan ikusten da 2000ko ekitaldiko gastu eta dirusarreraren egitura antza handia duela 1999ko ekitaldikoarekin. Ikus daitekeenez, gastu-egitura funtsean langileen arloan biltzen da; hori logikoa da, Eskolak ematen duen zerbitzua izaera kontuan hartzen bada. Dirusarrerei dagokienez, Eskolak sorturiko baliabideek aurrekontuaren ehuneko 25 egiten dute, eta kanpo finantzaketa –dirulaguntzen bidezkoa– beharrezko gertatzen da. Diru laguntza hori Nafarroako Gobernutik eta Burlata nahiz Atarrabiako udaletatik jasotzen da, eta ehuneko 75 egiten du.

2000. urtean zehar, eragin ekonomikoa 2000ko urtarrilaren 1etik aurrera duela, Musika Eskolako lan hitzarmen onetsi da; haren indarraldia 2001eko abenduaren 31 bitartekoa da.

Jarraian, hainbat kudeaketa-gomendio azalduko ditugu. Gomendio horiek Eskolako barne kontrolako sistemak hobetzeko komenigarritzat jotzen ditugu.

- *Obligazioak edo eskubideak erakartzen dituen egintza orok kontu-hartzailetzako kontrola edo barne kontrola igaro beharko du.*

• *Aurrekontuak onetsi behar dira horiek aplikatzen diren ekitaldia hasi baino lehen, eta behar den egunean likidatu behar dira.*

• *Langileen espedienteak dokumentuz behar bezala hornitzeko, langileen famili egoerari buruz -ko zinpeko aitorpenak urtero lor bitez.*

• *Inbertsioetan, behar bezala osatzea espedienteak eta indarreko legeak betetzea publikotasun eta lehiakortasunaren alderdian.*

• *Diruzaintzari dagokionez, kutzako kontaketak eta bankuen esparruko berdinkatzeak behar bezala horni bitez dokumentuz.*

• *Eragiketarako erregistratzeaz denaz bezainbat -an, zorrozki jarrai bedi sortzapen-printzipioa.*

• *Azkenik, Musika Eskolak eginiko jarduerak arrazoizkoak eta legezkoak direla ziurtatu ahal izateko beharrezkoak diren barne prozedura eta mekanismoak ezarri behar ditu Udalak.*

VII.2. KIROL EN UDAL PATRONATUA

Kirol en Udal Patronatuak 168 eta 176 milioi pezetako obligazio eta eskubide aitortuak, hurrenez hurren, agertzen ditu 2000ko ekitaldian (158 eta 161 milioi pezeta, hurrenez hurren, 1999an), eta 8 milioi pezetako superabita izan du (3 milioi pezeta 1999an). Zenbateko horiek ondoko taula hauetan agertzen dira, euren izaera ekonomikoaren arabera xeheki:

	Aitorturiko eskubideak (pezetak, milioitan)		Ehunekoak	
	2000	1999	2000	1999
Dirusarrerak				
Udal igerilekuetako kuotak	98	91	56	57
Bestelako dirusarrerak	18	15	10	9
Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza	1	2	1	1
Burlatako udalaren diru-laguntza	59	53	33	33
Guztira	176	161	100	100

	Aitorturiko obligazioak (pezetak, milioitan)		Ehunekoak	
	2000	1999	2000	1999
Gastuak				
Langileak	87	79	52	50
Zerbitzuak eta ondasunak erostea	59	60	35	38
Transferentziak	14	16	8	10
Bestelako gastuak	8	3	5	2
Guztira	168	158	100	100

Bi ekitaldi horietan, gastuen eta dirusarreraren egitura oso antzekoak dira. Ikus daitekeenez, gastu-egitura zerbitzuen funtzionamenduaren ondoriozkoen inguruan biltzen da. Dirusarrerari dagokionez, zentroak sorturiko baliabideek aurre-

kontuaren ehuneko 66 egiten dute, eta ehuneko 34ko kanpo finantzaketa behar du, Nafarroako Gobernuaren eta Udalaren beraren diru laguntzen bidezkoa.

Hala ere, aurreko datu ekonomiko horiek ez dira Patronatuak eginiko jardueren benetako agerpen bat, zeren Udalak zuzenean bere gain hartzen baititu inbertsioen eta funtzionamenduaren esparruko hainbat gastu, aurreko VI.1. atalean ikus daitekeen bezala.

Patronatuak egiten dituen jarduerak honako talde hauetan sailka daitezke:

a) Ikastetxe publikoentzat eta ikastetxe publikoek eginak.

b) Jarduera federatu eta federatu gabeak, zeinetan Patronatuak instalazioak uzten eta Burlatako kirol klubek eta beste elkarte batzuek –Patronatuko unitate independenteak– zuzenduriko hainbat jarduera finantzatzen baititu.

c) Patronatuak berak antolatutako jarduerak:

Azken horiek egiten dira zerbitzuak alokatzen dituzten enpresen bitartez. Kontratuak esleitzen dira administrazio kontratazioari buruzko araudiari jarraikiz.

Jarraian, Patronatuko barne kontrolerako sistemak hobetzeko komenigarritzat jotzen diren kudeaketa-gomendio batzuk agertzen dira:

• *Aurrekontuak onetsi behar dira horiek aplikatzen diren ekitaldia hasi baino lehen, eta behar den egunean likidatu behar dira.*

• *Gastuak eta dirusarrerak sortzapenaren arabera kontabilizatzea aurrekontuan, aurrekontu-betetzearen jarraipen egokia egiteko moduan.*

• *Langileen espedienteak dokumentuz behar bezala hornitzeko, langileen famili egoerari buruz -ko zinpeko aitorpenak urtero lor bitez.*

• *Administrazio kontratazio orotan publikotasun eta lehiakortasun printzipioa aplikatu bedi, indarreko legediari jarraituz.*

• *Udalak behar diren barne prozedura eta jardunbideak sortu behar ditu, Patronatuak eginiko jarduerak arrazoizkoak eta legezkoak direla ziurtatzeko. Era berean, bi erakundearen artean arlo honetako jarduera eta eskumenak argitu eta zehaztu behar dira.*

VII.3. KULTURA ETA JAIETARAKO UDAL PATRONATUA

Kultura eta Jaietarako Patronatuak 2000n agertzen dituen betebeharrak eta eskubide aitortuak

64 eta 65 milioi pezetakoak dira, hurrenez hurren (58 eta 54 milioi pezeta, hurrenez hurren, 1999an); beraz, 1 milioi pezetako defizita izan du (1999an 4 milioi pezetako superabita izan zen).

Izaera ekonomikoaren ikuspegitik, Patronatuaren gastu eta dirusarrerak honela xehekatzen dira:

	Aitorturiko eskubideak (pezetak, milioitan)		Ehunekoa	
	2000	1999	2000	1999
Dirusarrerak				
Arte eta lanbide eskola	-	1	-	2
Bestelako dirusarrerak	5	3	8	6
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza	-	-	-	-
Burlatako Udalaren diru laguntza	60	50	92	92
Guztira	65	54	100	100
	Aitorturiko obligazioak (pezetak, milioitan)		Ehunekoa	
	2000	1999	2000	1999
Gastuak				
Funtzionamendua	53	49	83	84
Transferentziak	10	9	16	16
Inbertsioak	1	-	1	-
Guztira	64	58	100	100

Ikus daitekeenez, gastu eta dirusarreraren 2000ko egiturak antza handia dauka 1999koarekin.

Gastuen osaera, funtsean, zerbitzuen funtzionamenduaren ondoriozkoen eta herriko zenbait elkarterek antolatutako kultur jardueretarako ekarpenen inguruan biltzen da. Funtzionamendu gastuen barnean sartzen dira herriko jaietarakoak, zeinek 20 milioi pezeta inguruko zenbatekoa baitute.

Dirusarrerei dagokienez, Patronatuak sorturiko balia bideak ez dira nahikoak, inondik ere, nolabaitteko finantza-autonomia izan dezan, zeren horien ehuneko 92 Udalak berak emandako diru laguntzaren bidez lortzen baitira (1999ko ekitaldiko ehuneko bera).

Kirol Patronatuaren kasuan bezalaxe, aurrekontu-informazio hori ez da Burlatako Udalak kultur arloan benetan eginiko jardueraren agerpen bat, Udalak bere gain hartzen baititu hainbat inbertsio eta funtzionamendu gastu.

Langileen arloan eginiko azterketaren bidez ikusi ahal izan da ezen, aurreko ekitaldian bezalaxe, Udaleko hainbat langileri ordainsariak ematen zaizkiela, Patronatuaren kontura, herrietako jaietan hainbat lan egiten erabilitako aparteko orduengatik, eta ez dela egin PFEZerako egin beharreko atxikipena, ez eta Gizarte Segurantzarako kotiza-

zioa ere, aipaturiko ordainsari horiek ez direlako sartzen langileen nominetan.

Patronatuak egiten dituen jarduerak honela laburbil daitezke:

- Kultur prestakuntzako programak.
- Kulturaren hedapena edo hainbat jarduera, hala nola kontzertuak, erakusketak eta abar.
- Animazio/dinamizazio sozio-kulturala edo Patronatuaren diru laguntzak jasotzen dituzten zenbait talde eta kolektibok eginiko jarduerak.
- Jai-sasoiak ekintza eta emanaldiak, hala nola herrietako festak, inauteriak, eguberrietako programa eta abar.

Aipaturiko jarduera horiek egiteko beharrezkoak diren hornidurei eta zerbitzu-alokatzeei dagokienez, ikusi ahal izan dugu, 1999ko ekitaldiari buruzko txostenean adierazi genuen bezala, hainbat alditan ez dela behar den esleipen-espeditentea gauzatu eta, ordea, beste batzuetan, esleipen prozedurak lehiakortasun eta publikotasun printzipioak, administrazio kontratazioak zuzendu behar dituzten horietan, urratu dituela.

Jarraian, Patronatuko barne kontroleko sistemak hobetzeko komenigarritzat jotzen diren kudeaketa-gomendio batzuk adieraziko ditugu. Kultur Patronaturako adierazitako gomendioak guztiz aplikagarriak dira Kulturakoaren kasuan ere; horrela, ba, haiek errepikatzeari itzuriko gatzazkio, eta berariaz Kultur Patronatuari buruz egin beharrekoak zehaztera mugatuko gara:

- Aurreko ekitaldiko diruzaintzako gerakina indarreko ekitaldiko aurrekontuari erantsi behar zaio, aurrekontu aldaketa bat eginez, dirusarreraren aurrekontuko hasierako aurreikuspenean sartu beharrean.*
- Araudi fiskala era guztietako ordainsariei aplikatu behar da.*
- Aurrekontuan gastuak eta dirusarrerak kontabilizatu sortzapenaren arabera, aurrekontu bete-tzearen gaineko jarraipen egokia egiteko moduan.*
- Langileria espedienteak behar bezala dokumentatzeko, urtero langileen famili egoerari buruzko zinpeko aitortpenak eskatzea.*
- Hirugarrenekin ezarritako harreman orok dagokion kontratu-dokumentua izan behar du oinarri, kontratazio araudian adierazitako betekizunak bete ondoren. Horretarako, komenigarria litzateke alderdien eskubide eta betebeharrak guztiak jasotzen dituen kontratu-eredu normalizatu bat eskuragarri izatea.*

Auditore Francisco Javier Sesma Masa jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2001eko azaroaren 19an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

BURLATAKO UDALAK AURKEZTURIKO ALEGAZIOAK

Kontuen Ganbarak Burlatako Udalaren 2000. urteko ekitaldiari buruzko txostenaren zirriborroa igorri digu. Udal honek bertan jasotako gomendioetako asko praktikan jartzea interesgarria ez ezik komenigarria ere jotzen duen arren, zenbait zehaztapen egin behar ditugu udal honen egoera ulertzen laguntzeko.

1. Zirriborroan zuzendu beharrekoak:

IV.1.1. puntuan, 2000ko aurrekontuaren likidazioari dagokionez (5. or.), ondokoa esaten da hitzez hitz "...2000ko ekitaldiko aurrekontua behin betiko onetsi gabe dago". Hori ez da egia, eta hala agertzen da Osoko Bilkurak 2001eko abuztuaren 6an eginiko bilkuraren aktan, ondokoak erabakitzen duenean:

"Behin betiko onestea Burlatako Udalaren 2000. urterako aurrekontua, hain zuzen ere gas-tuen eta dirusarreraren artean orekaturiko ondoko kopuruarekin: bi mila hirurehun eta hirurogeita hiru mila milioi bostehun eta lau mila seiehun eta hogeita bat (2.363.504.621) pezeta. Hori bat dator udal honetako Osoko Bilkurak hasiera batean, 2000ko ekainaren zazpiko saioan, onetsitako espedientearekin".

Bestalde, 2000ko aurrekontuaren betetzeari buruz iruzkin orokorreari buruzko IV.1 puntuan (15.

or.), ondokoa esaten da: "Langileez denaz bezainbatean, azpimarratzekoa da 2000ko plantilla organikoa ez dela onetsi; hori dela eta Udalak aurreko ekitaldikoaz baliatu da, baina enplegatu bakoitzari dagozkion ordainsari eta kategorietan eginiko aldaketak errespetatuz".

Baieztapen horren aurrean, esan behar da 2000ko ekitaldiko plantilla organikoa 2001eko abuztuaren 6ko Osoko Bilkuraren aparteko saioan onetsi dela. Hona hartutako erabakiak:

"2000. urteko plantilla organikoa onestea; behar diren diligentziak egin ondoren, saio honetako espedientearen erantsi da".

Horrenbestez, bi atal horiek eta haiekin loturiko gainerakoak zuzendu beharko dira, adierazitakoaren arabera. Bi gai horiek aztertu ziren saioko aktaren kopia erantsi digu.

2. 2000ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko eta finantzarioa.

2000ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko eta finantzarioari dagokionez, IV.1.4 atalean ondokoa esaten da: "Burlatako Udalak 2000ko abenduaren 31n agertzen duen finantza-egoerari buruz aipatzekoa da epe luzeko zorraren zenbateko handia -1.416 milioi pezeta- eta aurrezpen garbi negatiboa -ehuneko 1-; zorpetze maila gairiditurik dago".

Baieztapen horren aurrean esan behar da 2000ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko eta finantzarioak epe luzeko 1.416 milioi pezetako zorra agertzen badu ere zor hori justifikaturik dagoela, hain zuzen ere Burlatan egin diren inbertsioengatik, denak beharrezko eta ezinbestekoak. Ondoren datorren laburpenean, zorra gauzatu de inbertsioak ageri dira, behar diren zenbatekoekin:

Bankuen kredituekin eginiko finantza inbertsioak

Urtea	Inbertsioa	Zenbatekoa	2000.ean egiteko daudenak
93-94	Aurreko zorra	704.227.000	389.419.974
1995	Apartamentu babestuak	25.504.679	24.266.845
1996	95 - 96 inbertsioak (1)	444.256.380	388.517.604
1996	Eraikin berezia (E/Vinsa)	239.100.000	222.665.306
1997	1997ko inbertsioak (2)	163.582.989	156.479.462
2000	1999ko inbertsioak (3)	235.000.000	235.000.000
Guztira		1.811.671.048	1.416.349.191

(1) Inbertsioak, 1995 - 1996

Izena	Inbertsioa		Finantzazioa	
	Gastuak	Ekarpena	Kreditua	
Hegoaldeko kaleetako zorua jartzea	37.116.451		37.116.451	
Ezkabazabal plaza urbanizatzea	13.839.948		13.839.948	
Udal parkea urbanizatu eta ixtea	10.000.000		10.000.000	
Apartamentu babestuak altzariz hornitzea	10.000.000		10.000.000	
HAPOn aldatzea	20.000.000	7.000.000	13.000.000	
Ondarea erostea	30.000.000		30.000.000	
Udal parkeko jauregitxoa berritzea	30.000.000	15.000.000	15.000.000	
Kirol instalazioak	100.000.000	20.000.000	80.000.000	
E sektoreko urbanizazioa	427.299.981	210.000.000	217.299.981	
N-121aren bikoizketa	50.000.000	32.000.000	18.000.000	
Guztira	728.256.380		444.256.380	

(2) Inbertsioak. 1997. urtea

Izena	Inbertsioa		Finantzazioa	
	Gastuak	Ekarpena	Kreditua	
Kaleak ekortzeko makina	6.500.000		6.500.000	
Inbertsioen ekarpena. Kirol instalazioak	8.173.822			
Kirol instalazioak	91.826.178	20.000.000	80.000.000	
N-121 errepidearen bikoizketa	305.082.989	228.000.000	77.082.989	
Guztira	411.583.811	248.000.000	163.582.989	

(3) Inbertsioak. 1999ko urtea

Izena	Inbertsioa		Finantzazioa	
	Gastuak	Ekarpena	Kreditua	
Ermiteberri ikastetxeko haur parkea	2.500.000		2.500.000	
Floirac plazako haur parkea	3.734.424		3.734.424	
Argiteria zerbitzurako ibilgailua	9.000.000		9.000.000	
Udal parkeko jauregitxo berritzea, II. zatia	50.000.000		50.000.000	
Igerileku estalia	314.265.576	103.500.000	160.765.576	
Mailadi teleskopikoak, kirol instalazioetan	9.000.000		9.000.000	
Guztira	388.500.000	103.500.000	235.000.000	

Hartara 1.416.349.191 pezetako kopurua, Burlatako Udalak duen epe luzeko zorrari dagokiona eta Burlatako 2000. urteko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostenaren zirriborroan aipatzen dena, behar bezala justifikaturik geratzen da aurreko taulekin.

Fiskalizazio txostenaren zirriborroa dela-eta ohar gehiagorik egiteko ez dugu; zure eskura nago Burlatako Udalak dauzkan baliabideak hobetu eta optimizatzeko elkarrekin lan egiteko, behar den guztietan. Agur bero bat.

Burlatan, 2001eko urriaren 25ean

Alkatea: José Luis Góngora Setuáin

BURLATAKO UDALAK AURKEZTURIKO ALEGAZIOEN ERANTZUNA


Lehenbiziko alegazioaren erantzuna: ohartutako informazioa behin betiko txostenean bildu dugu.

Bigarren alegazioaren erantzuna: ez dugu horri buruzko iruzkinik egingen. Zenbait inbertsio egiteko erabakia Udalarena da soilik.

Iruñean, 2001eko azaroaren 19an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

I. eranskina: Burlatako Udaleko organigrama, 2000ko plantilla organikoaren arabera



II eranskina. Erabilitako adierazleen definizioa

- Diru-sarrereren betetze-maila = $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Gastuen betetze-maila = $\frac{\text{Aitorturiko obligazioak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Kobrantzen betetzea = $\frac{\text{Kobrantzak, guztira}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Ordainketen betetzea = $\frac{\text{Ordainketak, guztira}}{\text{Aitorturiko obligazioak, guztira}} \times 100$
- Zorpetze-maila = $\frac{\text{Finantza-zama (3. eta 9. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak (1-5 kapit.)}} \times 100$
- Zorpetze-muga = $\frac{\text{Diru-sarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. gastuak (1,2 eta 4. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak}} \times 100$
- Zorpetze-ahalmena = Muga- zorpetze-maila
- Aurrezki garbia = $\frac{\text{Diru-sarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. eta finan. gastuak (1- 4 eta 9. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak}} \times 100$
- Langileria indizea = $\frac{\text{Langileen aitorturiko obligazioak}}{\text{Aitorturiko obligazioak, guztira}} \times 100$
- Inbertsio-indizea = $\frac{\text{Inbertsio gastuak (6 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko obligazioak, guztira}} \times 100$
- Diru-laguntzekiko menpekotasuna = $\frac{\text{Transferentziengatik aitorturiko eskubideak (4 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Diru-sarrerak biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastuak biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Aitorturiko obligazioak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastu arruntak biztanle bakoitzekoko = $\frac{\text{Aitorturiko obligazioak (1-4 kapit.), guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Presio fiskala edo tributu bidezko dirusarrerak biztanleko = $\frac{\text{Tributu bidezko dirusarrerak (1, 2 eta 3. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Finantza-zama biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Finantza-zamak (3 eta 9. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$